

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILA

Justizia Sailburuordetza

Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS

Viceconsejería de Justicia

Dirección de la Administración de Justicia

Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Justizia Administrazioako kidego orokorretako funtzionarioak bulego judizialetako, udalerrietako justizia-bulegoetako eta Erregistro Zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren barruan borondatez berresteko behin betiko zerrenda berria argitaratzea; lanpostu horiek Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetakoak dira.

2025eko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez, Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetako funtzionarioak atxikitze irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena onartu ziren.

2025eko azaroaren 6ko Ebazpenak onartu egin zuen Justizia Administrazioako kidego orokorretako funtzionarioak egokitze-prozesuaren barruan barruti judizial horietan borondatez berresteko proposamena, eta hiru egun balioduneko epea eman zen langile horiek proposamen horrekiko adostasuna edo desadostasuna adieraz zezaten.

Epe hori amaituta eta langile horiek egindako adierazpenak ikusita, Justizia Administrazioako zuzendariak, 2025eko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, egokitze-prozesuan borondatez berresten diren karrerako funtzionarioen behin betiko zerrenda onartu zuen.

Baieztapen-proposamenaren zerrendan akatsa atzeman da eta, horren ondorioz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikuluekin bat etorriz, 2025eko azaroaren 25eko Ebazpenak, Justizia Administrazioako zuzendariarenak, errorea zuzendu zuen, eta epe berri bat ireki zen akatsak eragindako interesdunak berrespen-proposamenarekin adostasuna edo desadostasuna adierazteko.

Epe hori amaituta, eta espedientea aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Administrazioako kidego orokorretako funtzionarioak bulego judizialetako, udalerrietako justizia-bulegoetako eta Erregistro Zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren barruan borondatez berresteko behin betiko zerrenda argitaratzea; lanpostu horiek Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetakoak dira (I. eranskineko dokumentuan).

Era berean, baieztapen-proposamena egin zaien baina baiezta ez zaien pertsonen zerrenda atxikitzen da (II. eranskineko dokumentuan).

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus



Bigarrena.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA